

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK
2019ko ABENDUAREN 13an EGINDAKO
BATZAR NAGUSI ARRUNTAREN AKTA

Ablitasko Udala
Oibarko Udala
Allingo Udala
Alloko Udala
Altsasuko Udala
Andosillako Udala
Antsoaingo Udala
Agoizko Udala
Aranguren Ibarreko Udala
Arasko Udala
Arbizuko Udala
Arroizko Udala
Artazuko Udala
Atezko Udala
Aurizko Udala
Azagrako Udala
Bargotako Udala
Basaburuko Udala
Beintza-Labaiengo Udala
Beireko Udala
Beraskoaingo Udala
Beriaingo Udala
Berriobeitiko Udala
Bidaurreta Udala
Burlatako Udala
Cabanillasko Udala
Caparrosoko Udala
Kasedako Udala
Castejongo Udala
Oltza Zendeako Udala
Cintruenigoko Udala
Zizurko Udala
Cortesko Udala
Etxarriko Udala
Enerizko Udala
Etxalarako Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezporogiko Udala
Fiteroko Udala
Fontellasko Udala
Fustiñanako Udala
Galarko Udala
Gesalazko Udala

Iruña Park hotolean (Arcadio María Larraona, 1, Iruña), bi mila eta hemeretzi abenduaren 13an, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, NUKFren Batzar Nagusi Arrunta hasi da, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Mario Fabo Calero jn., Ander Oroz Casimiro jn. eta Berta Enrique Cornago and., lehendakaria, lehen lehendakariordea, bigarren lehendakariordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

GAI-ZERRENDA:

- 1.- 2018/12/14ko eta 2019/10/4ko Batzarretako aktak onestea.
- 2.- 2018ko Kontuak onestea.
- 3.- NUKFren 2019ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2020ko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2020ko Aurrekontua onestea.
- 6.- Idazkari Nagusia.
- 7.- NUKF Elkartearen Legera egokitzea.
- 9.- Galde-eskeak.

Lehendakariak bertaratutakoei ongietorria eman die eta mahaiko kideak aurkeztu ditu. Legealdiaren lehenengo Batzar Arrunt honetara bertaratzea eskertu du.

Ondoren, gai-zerrendari heldu diote.

1. gaia.- 2018/12/14ko eta 2019/10/4ko Batzarretako aktak onestea.

Deialdiarekin batera igorrita 2018ko abenduaren 14ko Batzar Nagusi Arruntaren aktaren kopia eta 2019ko urriaren 4ko Batzar Nagusi Bereziaren aktarena, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakari jaunak galdetu du inork oharrik egin nahi dien aktei.

Batzarraren onespenera jarri da 2018ko abenduaren 14ko Batzar Nagusi Arruntaren akta.

Girgillaoko Udala
Uharteko Udala
Irurtzungo Udala
Itzako Udala
Xabierko Udala
Xulapaingo Udala
Leitzako Udala
Lezaungo Udala
Ledeako Udala
Lizoain-Arriasgoitiko Udala
Lodosako Udala
Los Arcosko Udala
Martzellako Udala
Mendabiako Udala
Mendigorrako Udala
Muesko Udala
Murchanteko Udala
Murillo el Frutoko Udala
Noain Elortzibarko Udala
Odietako Udala
Erriberriko Udala
Olorizko Udala
Iruñeko Udala
Azkoiengo Udala
Garesko Udala
Puiuko Udala
Zareko Udala
San Adriango Udala
Santakarako Udala
Tafallako Udala
Torres del Rioko Udala
Uharte Arakilgo Udala
Ultzamako Udala
Urdiaingo Udala
Urraulbeitiko Udala
Urrotz-hiriko Udala
Eguesibarko Udala
Ollarango Udala
Vianako Udala
Alesbesko Udala
Villamayor de Monjardingo Udala
Villatuertako Udala
Atrabiako Udala
Esako Udala
Zizur Nagusiko Udala
Alkozko Kontzejua
Arizaletako Kontzejua
Arreko Kontzejua
Agezako Kontzejua
Etxagueko Kontzejua
Eritzeko Kontzejua
Gaskueko Kontzejua

Gehiengoz, hamar abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

2018ko abenduaren 14ko Batzar Nagusiaren akta onestea.

Ondoren, Batzarraren onespenera jarri da 2019ko urriaren 4ko Batzar Nagusi Bereziaren akta.

Gehiengoz, lau abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

2019ko urriaren 4ko Batzar Nagusi Bereziaren akta onestea.

2.- 2018ko Kontuak onestea.

Lehendakariak adierazi du aurten, hauteskundeak direla eta, ezin izan dela ekainean Batzar Berezia egin, aurreko legealdian egin ohi zen moduan. Batzar berezian, normalean, urtearen lehen seihilekoan egindako kudeaketaren berri emateaz gain kontuak onetsi ohi dira.

Batzarra egin ez zenez, orain kontuak onestea dagokio. Aldez aurretik joan den apirilean Batzorde Betearazleak dagoeneko kontuen proposamena onetsi zuen.

Datozen urtetan, Batzar Berezia egiten jarraituko dela zehaztu du lehendakariak.

Kontuak aurkeztu baino lehen, Idazkari Nagusiak NUKFk elkarte gisa duen aurrekontuaren ezaugarriak azaldu ditu labur.

Hala, azpimarratu duenez, aurrekontua ez da mugatzailea zenbatetsia baizik eta Jarduketan Planaren kostuari erantzuten dio. Halaber, nagusiki federazioaren kide direnen kuotek eta federazioak jasotzen dituen dirulaguntzek osatzen dute.

Beraz, ez da aurrekontuan aldaketarik egin behar aurrekontuetan ez dagoen gasturen bat egiteko; betiere, Batzorde Betearazleak edo organo eskudunak behar bezala onetsitako akordio bati erantzuten badio.

Kontuen sistema irabazi asmorik gabeko erakundeei dagokiena da, hots, merkataritza-kontabilitate erako sistema. Hala ere, kontuak aurkezteko kontabilitate publikoaren ereduari eta aurrekontu-kudeaketari egokitzen da.

Azalpenaren ondoren, kontuen likidazioa berrikusi dute eta aurrekontuaren likidazioa aurrekontuetan zehazten diren honako hiru programen arabera

Irurreko Kontzejua
Itzako Kontzejua
Itzalleko Kontzejua
Muru Artederretako Kontzejua
Olloko Kontzejua
Rocaforteko Kontzejua
Saratsako Kontzejua
Basaburua-Imotz udal elkartzea
Jurramendiko Mankomunitatea

Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen
Mankomunitatea

Altsasu, Olazti eta Ziordiko
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea

Arguedas, Valtierra, Villafranca,
Milagro eta Cadreitako Oinarrizko
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Buñuel aldeko Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea

Etxarri-Aranatz aldeko Oinarrizko
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Izarbeibarko Mankomunitatea

Ezin etorria adierazi dute:

Tuterako Udala
Erriberako Mankomunitatea

egituratzen dela azaldu dute: NUKFren aurrekontu orokorra, Concejo aldizkaria eta Trebakuntza Plana.

Azaldu dutenez, igorritako dokumentazioan eranskin gisa Geserlocal sozietatearen emaitzak bidali dira. Sozietate horren 2018ko etekin gordina, zergak kendu ondoren, 143.065,25 eurokoa da.

Aurrekontuaren gauzatzea, orokorrean, 76.585,02 eurokoa da, aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa.

Altxortegiko gerakina berriz, 1.474.024,47 eurokoa da.

Aurrekontuaren gauzatzeari buruzko zenbait iruzkin egin ondoren, kontuak Batzarraren onespenera jarri dira.

Gehiengoz, 21 abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

2018ko NUKFren kontuak onestea.

3. gaia.- NUKFren 2019ko Kudeaketa Txostena onestea

Gai-zerrendako hurrengo puntuari heldu diote ondoren, Kudeaketa Txostenaren onespenerari. Txosten hori aldeztatik Batzarraren kideei helarazi zitzaizkien bilkuraren deialdiarekin batera.

Egindako jarduketak gehienak aurreko legegintzaldiari badagozkio ere, lehendakariak garrantzitsuenak berrikusi ditu honako hauek nabarmenduta: NUKFren organoak berritzea; hauteskundeekin eta hautetsi berrien kargu-hartzeekin lotutako jarduketak, NUKFren plan estrategikoarekin lotutako jarduketak; hauteskunde elkarteekin izandako arazoak; emandako zerbitzuak etab.

Ondoren, kudeaketa txostena Batzarraren onespenera jarri du.

Gehiengoz, 24 abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

NUKFren 2019ko Kudeaketa Txostena onestea.

4. gaia - NUKFren 2020ko Jarduketan Programa onestea

Lehendakariak onespenera jarriko den jarduketan programa berrikusi du.

Datorren urtean Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legearen alorrean egiten jarraitu beharko diren lanak nabarmendu ditu, bereziki, bere garaietan aintzat hartu ez ziren toki entitateek eginiko proposamenak kontuan hartzeko lanak.

Finantzazio alorrean bestalde, gogoratu du 2017-2019 Toki Inbertsioen Programari 2020ra arte oniritzia eman zitzaiola obrak finantzatzeko beharrezkoa zelako baina orain, inbertsio berriak finantzatu ahal izateko ildo berriren bat sortzeko lanean ari direla. Horretaz gain, 2020ko Transferentzien Funtzaren alorrean lanak egiten ari dira gutxieneko zuzkidura bat eskatuz Nafarroako Toki Administrazioaren Berrantolaketari buruzko Foru Legeak ezartzen duen moduan.

Horretaz gain, nabarmentzekoak dira, administrazio elektronikoaren, jasangarritasunaren eta berdintasunaren alorrean egindako jarduketak.

Ondoren, jarduketan programa bozkatu egin da.

Gehiengoz, kontrako 15 boto eta bost abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

NUKFren 2020ko Jarduketan Programa onestea.

5. gaia.- NUKFren 2020ko Aurrekontua onestea

Lehendakariak aurrekontua laburbildu du eta idazkari nagusiari eman dio hitza. Horrek partidarik nabarmenenak azaldu ditu, 2019ko aurrekontuarekin eta likidazioarekin alderik handiena dutenak, alegia.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Liedenako Udaleko alkateak federazioaren gerakina hiri-eremuak berreskuratzeko deialdia osatzeko erabiltzea proposatu du.

Horren inguruan adierazi dute datorren urtean La Caixa fundazioari zuzkidura handitzeko eskatuko zaiola. Hasiara batean, 70.000 eurokoa zen eta ondoren 90.000 eurora handitu zen. Zuzkidura handitzeko eskatuko da aurkeztutako proiektu guztiak finantzatu ahal izateko.

Itzako Udaleko ordezkariak esan du zuzkidura igoera hori lortu ezean, gerakina erabiltzeko.

Bozketara jarrita,

Gehiengoz, 21 abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

NUKFren 2020ko aurrekontua onestea.

6. gaia.- Idazkari Nagusia

Lehendakariak azaldu duenez, estatutuei jarraiki Idazkari Nagusiaren agintaldia hura izendatu zuten udalbatzek legez duten berbera da eta idazkari bera behin baino gehiagotan izendatu daiteke.

Horrenbestez, legealdi berrirako idazkari bera izendatzea dagokio. Batzarrari dagokio Batzorde Betearazleak hala proposatuta, izendapena egitea. Hain zuzen ere, Batzordeak joan den azaroaren 19an egindako bilkuran aho batez onetsi zuen Berta Enrique egungo idazkari nagusiaren izendapena berritzea proposatzea.

Batzordearen onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA:

Berta Enrique Cornagori izendapena berritzea, NUKFko idazkari nagusi gisa.

7. gaia.- NUKF Elkarteen Legea egokitzea

Lehendakariak jakinarazi du entitatearen ordezkarietazapean sinadura elektronikoa edukitzeko, beharrezkoa dela izapide hori Elkarteen Erregistroan egitea.

Hala adierazi diote federazioari Moneta eta Tinbre Fabrikan NUKFren sinadura elektronikoari alta ematera joan denean. Izan ere, elkartearen ziurtagiria eskatzen baitute eta, horretarako, elkartearen informazio guztia eguneraturik eduki behar baita Nafarroako Foru Komunitateko Elkarteen Erregistroan. Ildo horretan, Elkarteei buruzko Legean lege hori baino lehenagoko elkarte guztientzat eskatzen den izapidea egiteke zegoen, lege horretara egokitzeko, estatutuak aldatuz, edo, beharrezkoa ez bada, aldatzeko beharrik gabe egokitzeko eskatuz. Izapide horrek Batzar Nagusiaren erabakia eskatzen du.

Federazioari dagokionean, ulertutzat jotzen da ez dagoela estatutuak aldatu beharrik eta, horregatik, Elkarteen Legeari egokitzea proposatzen da estatutuak aldatu beharrik gabe.

Batzordearen onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA:

1. NUKF martxoaren 22ko Elkartze-eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoari eta legea garatzen duten arauari egokitzea. Horretarako, Federazioa jardunean dagoela adieraztea.

2. Aurretik adierazitakoagatik, Estatutuak ez aldatzea erabakitzea, beharrezkoa ez delako eta estatutuok 1/2002 Lege Organikoak ezartzen duenarekin bat datozelako.

Hori dela eta, Batzar Nagusiak haren ardurapean adierazi egiten du Estatutuek 1/2002 Lege Organikoaren 7. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela eta, beraz, Estatutu horiek legeari egokitzen zaizkiola.

3º. 3. Nafarroako Elkartearen Erregistroari eskatzea Federazioa indarreko araudiari egokitzen zaiola idatziz jaso dezan.

4º. Elkartearen erregistroari jakinaraztea Federazioa jardunean ari dela.

5º. Halaber, erregistro horri jakinaraztea, Batzorde Betearazlea (egun indarrean dagoena) Estatutuei jarraiki izendatu zela 2019ko urriaren 4an eginiko Batzar Nagusian.

8. gaia.- Galde-eskeak

Santakarako Udaleko alkateak landa inguruneetan osasun arretarekin arazoa dagoela azaldu du, bereziki, arreta pediatrikoan, etengabeko mediku aldaketak aipatu ditu etab. Horregatik, NUKFri eskatu dio arazoa aintzat hartu eta egoera hobetzen lagundu dezan.

Oltza Zendeako Udaleko ordezkariak aldiz, abandonatutako animalien arazoari heldu dio eta eskatu du arazoari ahalik eta lasterren irtenbidea bilatzeko. Lehendakariak erantzun dio dagoeneko Nafarroako Gobernuarekin bildu dela gai hori jorrazteko eta horretan lanean jarraituko duela.

Beraskoingo Udaleko ordezkariak, berriz, bi gai izan ditu hizpide: bata, interneteko konexioarekin lotuta. Adierazi duenez, herri batzuetan aurrerapausoak ematen ari diren arren, oraindik ere Etxauriko Ibarrean konexio ona ez duten herri txikiak daude. Bigarrenik, batxilergoko ikasleen eskola-garraioa izan du hizpide, garraio hori ez baitago bermaturik. NUKFri eskatu dio bi gai horien inguruan lan egiteko.

Lehendakariak azaldu duenez, Lurralde Kohesiorako eta Toki administrazioko kontseilariarekin eta Lurraldeko Antolakuntzako eta Etxebizitzakoarekin izandako bileretan bi gaiak mahai gainean jarri zirela eta hurrengo Despopulazioari buruzko Batzordean jorrazteko beharko direla. Murillo el Frutoko Udaleko ordezkariak etxebizitza hutsen eta etxe-okupatzaileen arazoa azaldu du. Gai hauetan aholkularitza ematea beharrezkoa dela esan du. Horrekin lotuta, bizigarritasunaren zedula lortzeko eskatutako baldintzak aipatu dira horiek etxebizitza hutsetan jarduketak egitea zailtzen baitute.

Olloko kontzejuburuak adinekoentzako zerbitzuak eskaintzeko beharra adierazi du eta landa ingurunean zerbitzu horiek eskaintzeko arazoak daudela esan du. Azaldu duenez, jantoki sozial bat abian jarri dute baina oso garestia da kontzejuarentzat. Horregatik, eskatu du arazo hori Gobernuari eta Despopulazioari buruzko Batzordeari helarazteko.

Aranguren Ibarreko alkateak esan du ordea, oso ongi iruditzen zaizkiola sortzen ari diren gaiak toki izaera bete-betea dutelako. Etxebizitzari dagokionez eskatu du lanean jarraitu beharra dagoela udalen esku jartzen diren etxebizitzek Nafarroako Gobernuak alokairu poltsako etxebizitzaren onura fiskal berberak izan ditzaten. Era berean adierazi du Nafarroan bizigarritasun zedularen baldintzak zorrotzagoak direla beste Autonomia Erkidegoetan baino. Azkenik, etxebizitzaren eroldari heldu dio esanez ez litzatekela Nafarroa osorako eroldak bakarrik egon behar ez baitu logikarik Foru Komunitate osoan baremoak berdinak izatea.

Lehendakariak adierazi du proposamen guztiak Batzorde Betearazlean landuko direla.

Artazuko Udaleko ordezkariak igerilekuen baldintza higieniko-sanitarioak arautzen dituen Foru Dekretuari heldu dio eta adierazi du zaila dela baldintza horiek betetzea. Lehendakariak erantzun du laguntzak eskatzen ari direla dekretuak ezarritakoa bete ahal izateko.

Oltza Zendeako Udaleko ordezkariak sentikortasun gehiago eskatu du energia-eraginkortasunaren alorrean. Badaki sareak, klimaren aldeko ituna etab. daudela baina energia garbiak ezartzeko eskatu du eta hori udalek sustatzeko. Lehendakariak adierazi du beharrezkoa dela klimaren aldeko itunari buruzko informazioa indartzea alor horretan jardunbide egokiak ezagutu eta sustatzeko.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamaseiak eta hogeita hamarrek direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.